

6. KANALAK

Gure proiektua jendeak ezagutu ahal izateko hainbat ideia pentsatu ditugu. Baina gure enpresa publikoa izan da, gobernutik jasoko dugun diru kantitatea dela eta, erabiliko ditugun baliabideak nahiko murriztuak izango dira.

Lehenik jendeak gure zerbitzuei buruz jakin nahi duen informazio guztia gure web orrialdean aurkitu ahalko dute. Horren bidez jendeak gure enpresaren berri edukiko du, baita gurekin kolaboratzeko asmoa duten beste enpresa desberdinek ere.

Horrez gain ideia bat kaleetan informazioa zabaltzen duten postuak jartzea da. Bertan gure langile desberdinak egongo dira , eta gure web orrialdea irakurri ezin dutenei kalean gure enpresari buruzko aurkezpen txiki bat egingo zaie. Bertan empresako kide eta bezeroen arteko lehen harremanak egingo dira.

Baita ere hiriko irratan informazioa zabaltzeko iragarki motz bat egingo dugu. Nahiz eta gure zerbitzuak jasotzen dituzten gehienak kanpotarrak izan herria gure ekimenaz informatzera bultzatu nahi dugu jendea. Inguruan dituzten lagun eta senideei proiektu honi buruz berri emateko.

Hasieran esan dudana bezala gure enpresa publikoa izango da, konkretuki Donostiako udalak finantziatuko du. Horregatik udaletxean gure proiektuari buruzko informazio liburuxkak egongo dira eskuragarri.